



**ERRONKA
GARBIA**
INGURUMEN ALDETIK
JASANGARRIA DEN
EKITALDIA



EKITALDIAREN INGURUMEN- ADIERAZPENA

UIK – (UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioa)

AURKEZPENA

UIK - UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioa

Egitekoa

UIKren egitekoa da unibertsitate zabalkundea eta prestakuntza, bizitza osoan zeharreko prestakuntza bereziki, ezagutza profesionalak eguneratzearen, sentsibilizazioaren eta gizartean garrantzitsuak diren gaiei buruzko eztabaidaren bidez, partaidetzan oinarritutako topagune bat eratuz horrela.

UIKren egiteko osagarri bat da UPV/EHUren irudi positiboa zabaltzea, baita euskal kulturarena, gure erakundeena eta entitate laguntzaileena ere.

UIK-k bere egitekoa betetzen du lankidetzan bere inguruko, estatuko eta nazioarteko agente publiko eta sozioekonomikoekin.

Ikuspegia

Gure ikuspegia da erreferentziazko topagune bihurtzea estatuan eta nazioartean, gizartearen erronkei dagokienez gizarteko eragileen prestakuntza, eztabaida eta topaketarako.

EKITALDI JASANGARRIA

UIK-n aspaldidanik izan dugu ingurumenean izan ditzakegun inpaktu negatiboak minimizateko helburua. Gure xedea kontutan izanik, barrura ezezik, kanpora begira ere lan egiten dugu iraunkortasunaren inguruko ikastaro ugari antolatu ohi dira urteetan zehar eta bereziki, gaiak duen garrantzia kontutan izanik, 2020an Donostia Sustainability Forum sortu genuen, BBVA Fundazioa, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzza – IHOBE eta Donostiako Udalarekin batera, aldaketa klimatikoan fokoa jartzeko.

Erronka Garbiarekin bat egin nahi izan dugu gure apostuan aurrera egiteko, jardueren jasangarritasun neurriak areagotuz, ingurumen-sentsibilizazioan aratago joateko eta ingurumen- inpaktua kalkulatzeko baliozko erreminta bezala.

2022an gure ekintzak doitu ditugu eta hiru proba egin ditugu. Jarduerak egiteko egoitzaren eragina kontuan hartuta, egoitza nagusietan egindako hiru Uda Ikastaro aukeratu ditugu:



Miramar Jauregia.
(Donostia/San Sebastián)



UPV/EHUko Gipuzkoako Campuseko
Carlos Santamaria Liburutegia.
(Donostia/San Sebastián)



Bizkaia Aretoa-UPV/EHU.
(Bilbao)

Hauek dira aztertutako Uda Ikastaroak:


Kodea - Ikastaroa	Egoitza	Data	Parte hartzaileak
O12-22 Lo que sí tiene nombre: el suicidio	Carlos Santamaria Liburutegia	Uzatailak 4 eta 5	127
I09-22 Escuela de Comunicación Ambiental 2022. Crisis ecológica, crisis sanitaria	Miramar Jauregia	Irailak 7 eta 8	78
Z26-22 Nuevas respuestas a la crisis climática en el actual contexto geopolítico y energético	Bizkaia Aretoa-UPV/EHU	Irailak 15 eta 16	80

Esperientziari esker, urtetik urtera hobetzen joango gara, Fundazioaren jardura guztiei metodologia aplikatu arte eta Erronka Garbia metodologiaren ardatz guztiak kontuan hartua.

ERRONKA GARBIA

Erronka Garbia ziurtagiriak, Ihobe Ingurumen Kudeaketa Sozietate Publikoak emandakoak, ekitaldiek ingurumenean eragin ditzaketen inpaktu negatiboak minimizatzeke asmoz diseinuan eta antolakuntzan ingurumen-neurriak txertatzen dituzten ekitaldiak aitortzen ditu.

Horrela, ekimena barneratzen duten ekitaldiek hainbat jasangarritasun neurri ezartzen dituzte jarraian adierazten diren sei jokabide-ardatzetan, ingurumen-sentsibilizazioa aurrekoekiko zeharkako ardatz moduan utzita, eta ondoren sortutako ingurumen-inpaktua kalkulatzeko dute, hurrengo edizioetan hobetu ahal izateko asmoz.



Erronka Garbia jokabide-ardatzak

INGURUMEN-HELBURUAK ETA -JOMUGAK

Uda Ikastaroen ingurumen-helburuak ezartzeko, antolaketa-prozesua aztertu da eta ingurumenean eragina izan dezaketen elementuak hauteman dira.


Hauek dira edizio honetarako finkatu diren ingurumen-helburu nagusiak:

- ✓ Berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea.
- ✓ Sortutako hondakinak jatorrian murriztea.
- ✓ Sortutako hondakinen gaikako bilketa.

Jarraian, Erronka Garbia metodologia antolatzen den sei ardatzetako bakoitzerako hartutako neurriak zehazten dira.

Egoitzen kokapenak erraztu egiten du ikasleek garraio publikoa erabiltzea. Irakasleei dagokienez, ahal den guztietan **garraio publikoko** bidaiak lehenesten dira.

Hizlariak Bilboko **aireportutik** Donostiara **linea erregularreko autobusez** lekualdatzen dira, taxiaren erabilera ahal den neurrian saihestuz.



Ikaslegoaren gehiengoak (%59) garraio publikoa erabili du

Hornitzaile nagusien egoitza Uda Ikastaroak egiten diren lekuetatik **10 km baino gutxiagora** dago. Muntaia-elementuak biltegitratzen saiatzen da, kamioi astunak ez erabiltzeko. Gehienetan furgoneta txikiak erabiltzen dira.

Agertokien garraioa (kamioi handia) 2 bidaietara murriztu da edizio osoan



Agertoki txikia UIK

Uda Ikastaroen %86k zuzenean online jarraitzeko aukera ematen dute, eta, horri esker, lekualdatzeen beharra nabarmen murrizten da.

Hizlarietzako eta bertaratuentzako **ostatua** eta **jatetxeak** Uda Ikastaroak egiten diren egoitzekiko **hurbiltasunaren** arabera aukeratzen dira, oinezko lekualdaketak errazteko.



Uda ikastaroak egiten diren eraikinen kudeaketa ez da Fundazioaren eskumena, baina bertako langileek eta kontratatutako pertsonak **energia-kontsumoa ahal den neurrian murrizteko** kontsigna dute, hala nola argiak itzaltzea beharrezkoak ez direnean edo aire girotuaren termostatoa erregulatzea.

Aretoetako aire
girotuaren temperatura
2°C igo da udan



Miramar Jauregiko Caro Baroja aretoa



Uda ikastaroak egiten diren eraikinen kudeaketa ez da Fundazioaren eskumena, baina arduradunei **uraren kontsumo arduratsua egiteko kontzientziakartelak** jartzeko eskatzen zaie, halakorik ez badago.

Sareko ura erabiltzen da ahal den neurrian hizlariantzat, eta aukeran litro terdiko beirazko botilak.



Sareko ura
lehenesten da
edalontzi
birziklagarriak urez
betetzeko

Fundazioak **material birziklatuak** erabiltzen ditu bere bulegoetako paperetan eta part e-hartzailearen packean (poltsa, koadernoak, boligrafoa).

Jatetxeak aukeratzeko orduan, haien **produktu-politika** kontuan hartzen da.

Catering enpresari eskatu zaio **0 Km-ko politikak** txertatzeko eta zerbitzua emateko **material birziklagarriak** erabiltzea. zurezko koilaratxoak gehitu ditu.

Gosari
osasungarriak
gehitu dira



Fruta aukera dago gosarietan

Fundazioak eskatuta, Miramar Jauregiko makina automatikoak kudeatzen dituen enpresak paperezko **edalontziak** eta **zurezko koilaratxoak** gehitu ditu.



Material jasangarriak eta birziklagarriak

Makinek **material**
jasangarriak eta
birziklagarriak
erabiltzen dituzte



UIKen seinale berriak diseinatzeko orduan, publizitate-euskarriak **berrerabilgarriak** eta **balioaniztunak** izatea hartu da kontuan. Horrela, espazio guztiak estaltzeko behar den material kopurua murriztea lortu da.

Fundazioak ez ditu jarduerak antolatzen diren azpiegiturak bere horretan kudeatzen, baina honako kudeaketa hauek egin ditu;

- Fundazioaren politikaren eta Erronka Garbiaren erronken berri ematea jabeei, eta helburuak betetzeko **lankidetz**a eskatzea
- Azpiegituren baliabideak **zentzuz** erabiltzen saiatzea

UIKren **seinaletika**
berria euskarri
berrerabilgarrietan
erabiltzeko diseinatu da



UIKren irudia seinaletika berrerabilgarrian



Altzariak erostean **plastikoa saihesten** da



Jardueren kudeaketatik eratorritakoa da UIKen sortzen den hondakin-iturri nagusia. Paper-kopurua murrizteko helburuarekin, kudeaketa-plataforma bat sortzearen aldeko apustua egin da, erabiltzen den **paper-kopurua % 90 batean murriztea** lortu duena.

Hondakinak bereizteko ontziak daude UIKen bulegoetan, eta **lan-taldea** dagozkien edukiontzi publikoetara garraiatzeaz arduratzen da.

Berrerabil daitezkeen baina Fundazioak jada behar ez dituen materialak karitatezko erakundeei ematen zaizkie zirkulazioan jarrai dezaten.

Hondakinak gaika biltzeko guneak jarri ditu UIKen egoitza nagusiak



Bulego nagusietako hondakinak gaika biltzeaz arduratzen da UIKeko taldea



Erabiltzen ez den bulegoko materiala, altzariak eta material informatikoa dagokion **garbigunera** eramaten da

IKTko arduraduna arduratzen da material teknikoa birziklatzeaz

EKITALDIAREN INGURUMEN-INPAKTUA

Erronka Garbia ekimenean parte-hartzeak ekitaldiari bere ingurumen-inpaktua kalkulatzea ahalbidetu dio, honetarako beharrezko datuak monitorizazio plan baten bitartez eskuratu direla. Ondoren, kalkulua Erronka Garbiaren Ingurumen-Inpaktu Kalkulagailu tresnarekin burutu da, zeinak Bizi-Ziklo analisiaren (BZA) metodologia erabiltzen duen.

Bizi-Ziklo Analisia

Bizi Ziklo Analisia produktu, prozesu edo sistema baten bere bizi ziklo osoan zeharkako ingurumen inpaktua neurtzeko erreminta metodologiko bat da. Fabrikaziorako beharrezkoak diren lehengaiak lortzen diren une zehatzetik bere bizi-tza erabilgarriaren amaiera arte.

Tresna honek sistemaren sarrera eta irteeren analisi eta konpilazioan jartzen du arreta, ondoren inpaktu potentzial adierazgarrienak agerian uzteko. Bere helburua, beraz, hauek minimizatzeko ekintzak definitzea da.

Hiru ingurumen-inpaktu emaitza

Karbono Aztarna: edozein pertsona, erakunde edo produktuk bere bizi-ziklo osoan zehar zuzenean edo zeharka eragindako CO₂ eta berotegi-efektuko gasak definitzen ditu, CO₂ baliokidetan adierazita. BZA baten bertsio laburtu bat da, non bakarrik berotze globalaren kategoria kontuan hartzen den.


Ur-aztarna: ekitaldiak zuzenean edo zeharka kontsumitutako ur geza islatzen duen adierazgarri unibertuala da. Hau da, ez du bakarrik ekitaldian zehar kontsumitutako sareko edateko ura kontuan hartzen, baizik eta produktuen fabrikazio prozesuetan edo hondakinen tratamenduan kontsumitutakoa ere, beste askoren artean.

Ingurumen-aztarna: bizi ziklo osoan zehar produktu edo erakunde baten ingurumen jarrera kontuan hartuta sortzen diren inpaktu esanguratsuenak aurkezten dituen adierazgarria da. Aztarna honek hauetako bakoitza aztertu eta pisu zehatz bat eransten dio, bakoitzaren garrantzia erlatiboa puntuekin (mPto) adieraziz. Inpaktu honen emaitzak 17 kategorietan behatzen dira, Ingurumen-Inpaktu Kalkulagailuaren Emaitzak atalean behatu daitezkeenak.

Ekitaldiaren ingurumen-inpaktuaren laburpena
012-22, 109-22, 226-22



Karbono-aztarna



GUZTIRA
EKITALDIAK

16.635
kg CO₂ bal.


PERTSONAKO



59
kg CO₂ bal.



Ur-aztarna



GUZTIRA
EKITALDIAK

29
m³ H₂O


PERTSONAKO



0,103
m³ H₂O



Ingurumen-aztarna



GUZTIRA
EKITALDIAK

1.590.824
mPt

PERTSONAKO



5.621
mPt



EMAITZEN INTERPRETAZIOA

Karbono-aztarna:

Monitorizatutako ikastaroetara joaten direnen **mugikortasunak** eragiten du inpaktu handiena. Hori lurraldeko eta Estatuko beste herri batzuetatik egindako joan-etorrien ondorio da.

Inpaktu ia guztia mugikortasunarena da. Hegazkinek eta autoek bakarrik inpaktuaren %80 baino gehiago suposatu dute, nahiz eta oso pertsona gutxik erabili dituzten. Bi joan-etorri izan dira, bata Australiatik eta bestea Perutik. Fundazioaren asmoa da joan-etorri horiek saihestea, **on-line zuzenean jarraitzeko aukera eskainiz**, baina pertsona batzuek nahiago dute networkingerako bertaratzea eta bidaia beste konpromiso batzuekin bateratzea. Bi bidaia horien ingurumen-inpaktua ikastaroetara egotzi dugu, baina partekatu egin behar litzateke.

Egoitzen kokapenari esker, joan-etorri gehienak garraio publikoan egin dira.

Ur-aztarna:

Sareko uraren kontsumoak eta ostatuetan kontsumitutakoa **pisu zertxobait handiagoa** izan dute baina inpaktu gehiena mugikortasunarengatik izan da berriz ere.

Ingurumen-aztarna:

Karbono aztarnan bezala, inpaktu ia guztia hegazkinak eta autoen erabileragatik. Kasu honetan **azpiegituen erabilerak inpaktu txiki bat suposatu du** ere bai, baina hutsala.

KOMUNIKAZIO- ETA SENTSIBILIZAZIO-EKINTZAK

Ekitaldiaren jasagarritasun-irizpideen ezarketak ez du bakarrik, inportantzia duen arren, bere ingurumen-kaltea murriztea bilatu nahi izan, baizik eta inplikaturako eragile guztiak norabide honetan bultzatzea ere izan du helburu.

Horrela, ekitaldiaren aurretik, bitartean eta behin amaitutakoan komunikazio- eta sentsibilizazio-kanpaina bat sustatu da hainbat euskarriren bidez, ezarritako ekintzak jarraian zehaztasun gehiagorekin azalduko direla.

- ✓ Erronka Garbia ekimenaren proban parte hartu duten ikastaroetara bertaratu direnei informazioa eman zaie.
- ✓ Era berean, Uda Ikastaroak egin diren eraikinetako erakunde kudeatzaileekin harremanetan jarri gara, **informazioa emateko** eta ekimenaren inguruko **ekarpena egiteko** eskatzeko.
- ✓ Txosten hau osatu ondoren, Fundazioaren **sare sozialen** bidez jakinaraziko da.
- ✓ **Atal bat** gehituko da UIKen webgunean, ekimen honen berri emateko.
- ✓ Fundazioaren **zabalkunde elementuetan** ekimenaren logotipoa sartuko da, webguneko atalera esteka eta guzti.
- ✓ 2023ko edizioko **Araudian Erronka Garbia** ekimenari atxikitzea gehitu da, eragile guztiei lankidetzat eskatuz.
- ✓ Fundazioak bere kontaktuei bidaltzen dizkien **buletin eta mezu informatiboetan**, ekimenarekin bat egiten duela adieraziko da, bai eta honako hauei buruzko zenbait argibide ere: Udako Ikastaroak egiten diren lekura garraio publikoaren bidez gerturatzea, ura eta birziklatzeko ontziak modu arrazionalen erabiltzea ospakizun-lekuetan, etab.
- ✓ Egindako aurrerapenen berri emango da **sare sozialen** bidez.

HOBKUNTZA ATALAK

Ekitaldiaren egiaztapen prozesuak eta ingurumen-inpaktuaren kalkuluak hurrengo edizio edo antzeko ekitaldietarako hobekuntza atalak identifikatzeko ere balio izan du, Erronka Garbia ziurtagiriaren etengabeko hobekuntza helburua betez.

2022an egindako probak aukera eman digu:

- ✓ Prozesua ezagutzea, ondoren sistematizatzeko.
- ✓ Lan-talde eta kolaboratzaileen inplikazioa iraunkortasun helburuak lortzeko.
- ✓ Hobetu beharreko arlo gehiago identifikatzea.
- ✓ Inpaktua neurtzeko eredu bat izatea.

2023rako **erronka** egindako proba jarduera guztietara edo gehienetara eramatea da. Behin urteko programa edukita (otsailaren erdialdea), azterketa egingo da eta 2023rako helburu zehatzak finkatuko dira. Helburu horiek urteko plan batean jasoko dira.

Ekintza zehatzez gain, Udako Ikastaroen egoitzen konpromiso handiagoa lortzen saiatuko gara, eta kontratazio guztietan Erronka Garbia politikak sartzea sistematizatuko dugu.



2022ko abenduaren 30a

UIK - (UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioa)